

Homo faber

Joxe Austin Arrietaren eta Juan Garziaren arteko elkarrizketa

Joxe Austin Arrieta Ugartetxea (Donostia, 1949) idazle eta itzultzailearekin mintzatu zen Juan Garzia, *Senex*-eko mikrofonoak aurrean zirela, literatur itzulpenaz eta, bereziki, donostiarrak berriki argitaratua duen Max Frisch-en *Homo faber* eleberraren itzulpenaz.

Arrietaren literatur itzulpenak bakanak dira, zentzu bietan bakanak gainera: sorkuntza lanekin (eta bizi beharren beste alderdi ezinbestekoekin!) tartekaturik argitaratu izan ditu itzulpenak, tarte luzea utzita, baina alde edo molde itzulpen lanok mugari gertatu dira gure egunetako itzulpengintzaren historia txikian. Lehenik, 1985ean Marguerite Yourcenar-en *Mémoires d'Hadrien* (*Hadrianoren oroitzapenak*) itzuli zuen frantsetik. 1990ean ingelesetik euskaratu zuen *Lord of the Flies* (*Eulien ugazaba*), William

Golding-ena. Katalanetik, Jaume Fuster-en *Les claus de vidre* (*Beirazko giltzak*) eman zuen geroago, detektibe eleberru umoretsu bat, Kataluniako hirietan girotua; eta orain etorri da azken hau, *Homo faber* alegia, alemanetik itzulia. «Dena dela –dio, irribarrea ezin ezkutaturik– nire itzulpen lanak askoz ere ugariagoak dira, ezezagunagoak ere bai, tamalez literaturaren pareko xarmarik ez duten klausula, kontratu, marketin kanpaina eta abar askoz ere lehorragoen itzulpenetan baitut ogibidea atera beharra egunero. Halaberrez egindako itzulpen horiek bata bestearen atzetik jarriko banitu, ilara luze bezain aspergarria osatuko nuke ziurrenik! Aitortu beharra daukat, nolana ere, entrenamendu gisa, ez dela hain lantegi txarra ere: egunero, euskara zorrotzen eta egokitzen, *noranahikotzen*, jardun beharra ez da benta-ja makala».

Juan Garzia: Beraz, esan daiteke eleberri honen itzulpenak isilaldi luze samar bat haus-ten duela? Nolabait Joxe Austin Arrietaren *rentrée* bat dagoela esan genezake, itzulpen plazara itzultzea, alegia?

Joxe Austin Arrieta: Ez da horrenbeste denbora ere joan azken itzulpena, *Beirazko giltzak*, kaleratu zidatenetik, beraz ez nuke esango *rentrée* bat denik, nik ez dut halako sentipenik izan behintzat. Dena dela, argi esan behar dut oso geldo egiten ditudala nire itzulpenak. Ez nuke esango zergatik den hori, baina badakit ikaragarri geldo egin behar izaten dudala lana.

JG: Agian nire irudipena besterik ez da Joxe Austin Arrieta aspaldiko partez itzulpenaren mundutik aldendua ibili ote den. Esan nahi dut, neurketa estatistiko zehatzik ez dut egin, baina azken lauzpabost urteotan zure lanik plazaratu gabe egonik, zure presentzia, itzultzaile aktibo gisara, atzera samarra gelditu dela iruditzen zait. Egia esan, bere bakanean J.A. Arrietaren itzulpengintza beti ikusi izan dut aitzindari lana egiten, «pionero» lana egiten, eremu urratu gabeetara ausartzen; gero, Literatura Unibertsaleko bilduma iritsi zen, eta horrek gure itzulpen panorama, baita ikuspegia ere ziur aski, zeharo aldatu zuen: lanak modu sistematikoan egiten hasi ziren, lehen baino askoz ugariagoak, itzultzaile zahar eta berri andana bat jalgi zen plazara, denok izan genuen zer ikasirik, baita zer eskainirik ere. Zu, ordea, gurgil handi horretan sartu gabe, jokoz kanpo edo, ikusi izan zaitugu. Zer izan da, ez duzula horretan sartu nahi izan, besteen lanak hausnartzen ari izan zarela?

JAA: Hala suertatu zaidala esan beharra daukat, Literatura Unibertsaleko mugimendu horretatik at gelditzea, alegia. Ez saiatu izan ez naizelako, ordea. Egia osorik aitortu behar badut, hiruzpalau bider aurkeztu izan ditut Literatura Unibertsaleko lehiaketan proposamenak, bai alemanetik, bai ingelestetik, bai gazteleratik, baita frantsesetik ere, obrak euskaratzeko. Urrutira gabe, *Homo faber* bera aurkeztera iritsi nintzen, garai batean EIZIEk zabaldutako itzulgaien zerrendaren barne izan baitzen obra hori. Nire proposamen horiek, lagin labur batean bildurik noski, ez obra osoa, ez ziren nonbait lehiaketa erabaki behar zuen epaimahairen atsegineko gertatu, eta dena delakoagatik, itzulpen lan horietako batzuk eman gabe gelditu ziren. Beraz, ez dut aukerarik izan Literatura Unibertsaleko bilduma horretara ekarpenik egiteko. Eta ez diot hau arranguraz edo saminez, inola ere; gauzak gertatu diren bezala esaten ari naiz, besterik gabe...

JG: Aitortuko dizut, horretaz ari garela, sekretu isilpeko bat: itzultzaile sona eta izen handiko bati baino gehiagori ere gertatu zaio halakorik Literatura Unibertsaleko bilduman, proposamenak aurkeztu eta epaimahaiak atzera bota izatea. Beraz, ez duzu pentsatu behar bakarra zarenik, ezta gutxiagorik ere. Hor badago koska bat, gaintitzen erraza ez dena, epaimahaiak halakoetan «bai ala ez» erako epaia eman behar duenez; ez dezake esan «hau bai, baina...» edo «hori ona da, hura hobea», ez: zirt ala zart, erabaki behar du obra bat itzuliko den ala ez, eta hori gauza konplexua da, zinez konplexua, 10 orriko lagin baten oinarri hutsean erabaki behar baldin bada...

JAA: Bai, jabetzen naiz horretaz, baina harriduraz hartu izan dut nik proposatutako itzulgaiak, behin baino gehiagotan, ez niri ez beste inori, eman gabe laga izana. Dena dela, berriro diot, ez naiz atzera begira jarriko kontu horretan. *Homo faber*-en kasuan, esate baterako, inori esleitu gabe gelditzen zela ikusirik, eta nik lana hasi samartua neukala kontuan harturik (eta, egia esan, hain liburu ederra izanik, euskaratzeko berebiziko gogoia neukalako), baimena eskatu nion EIZIERi bildumatik aparte lana egin eta argitaratzeko, eta arazorik gabe lortu ere bai baimen hori. Halaxe argitaratu ahal izan dut, Elkarlanean argitaletxearen oniritziz eta babesaz, noski.

JG: Esango nuke Literatura Unibertsaleko hastapeneko proiektuaren izpirituan, baita letran ere, argi eta garbi dagoela bilduma ez dela ekimen pribatuari eragozpenik edo lehiarik egiteko sortu.

JAA: Bai, ez nuen inolako oztoporik aurkitu elkartearen aldetik, itzulpena nire kasa egin eta bildumaz kanpo argitaratzeko. Dena dela, egia osoa aitortzeko, huts egindako proposamen horien inguruan, nolabaiteko autokonfiantza-krisia ere izan nuen. Inoiz ausartu ere egin nintzen, pentsa, «desierto» edo eman gabe utzitako kasu horietakoren batean, epaimahaikide bati galdetzen ea nire lagin horiek zertan ez zuten gutxieneko kalitate-maila gaintzen, baina, elkarriketa guztiz adeitsua izan arren, berehala ohartu nintzen agian besteren baratzean sartzen ari nintzela, eta bere horretan utzi nuen gauza. Krisi edo dena delakoaren funtsa, aise ulertuko duzuenez, nire itzultzaile zereginaren ingurukoa zen, nere buruari honelako gal-

derak egiten nizkiola: «Ni hemen zaharkituta gelditu ote naiz, bide bazterrean gelditu ote naiz oharkabea? Ez ote dut behar bezala jarraitu gure hizkuntza literarioaren garapena? Sentitu nintzen, nolabait esateko, uhinak buruz gain harrapatu izan banindu bezala, eta galdetzen nion nere buruari zer ikastaro, edo zer erreziklaje egin behar ote nuen bago horren gainera igotzeko...» Ez nuen korapiloa askatzeko hari mutur argirik aurkitu nere baitan, eta erabaki nuen handik aurrera Literatura Unibertsaleko bildumarako lehiaketan gehiago proposamenik ez aurkeztea.

JG: Gauzak diren bezala esatearren, batzuetan aurreiritziak ere sumatu izan dira epaimahaien jokabidean. Uler dezagun, nahi bada, autokritika gisara, EIZIERen jarduera baita nagusiki Literatura Unibertsaleko bildumarena. Jokoan diren jatorrizko hizkuntza guztien jabe ez izatea epaimahaikideak, inoiz itzulpengintzaren ikuspegitik koalfikazio eskaseko ordezkariaren bat izatea epaimahaiaren, literatur irizpide edo aukeretan oso markatutako jendea izatea... Arazo asko egon izan direla esango nuke nik, eta edozein modutan epaimahai sistemak berezkoa du beti arrisku hori. Zernahi gisaz, nola ikusi izan duzu Literatura Unibertsaleko bilduman egin den aurrerabidea? Zer deritzozu egindako lanari, aitzindariaren talaiatik ikusi duzu («tira, horiek baziaztek!»), ala gertu samarretik jarraitu duzu mugimendua?

JAA: Bai, aski hurbiletik jarraitu dut. Ez dut esango bildumaren obra guzti-guztiak irakurri ditudanik, ezta gutxiago ere, baina ale asko irakurriak ditut, interes handiarekin gainera. Labur adierazteko, iruditzen zait hor

sekulako altxorra dagoela, eta eragin zuzena duela gure literatur hizkuntzaren garapenean eta eguneratzean. Are eta gehiago ere esango nuke: gure literatur sormenean ere eragin duela, zalantzarik gabe.

JG: Gatozen berriro arestian aipatu duzun geldotasunaren kontu horretara, hau da, erritmo geldoan zure lan egite horretara. Era horretan jokatzerara behartuta ikusten duzu zeure burua? Gauzak xehetasunez egin nahi izateak eramaten zaitu horretara? Perfekzionismoa da, edo hori baino gehiago? Oroitzen naiz orain dela denbora puska bat adiskide dudana itzultzaile batek erantzun zidana, Literatura Unibertsaleko bildumako argitalpenak zuzendu behar izaten dituenaren eramana eta xehe-gosea goraiatu nionean: «Hik zuzenketa beharrez bidaliko dituk itzulpenak; nik berriz, garbi-garbi aurkezten ditiat, "soineko xuriz jantziak", eta ez diat inoiz besteren zuzenketa beharrik izaten». Jakina, denok ez dugu halako *egorik*... Itzulpengintzan, bizitzaren beste alderdi gehienetan bezala, badago halako zorientasunean bizi den jenderik, bere buruarekin ados. Besteok, berriz, kondnaturik gaude gauzak ongi egin nahi izatearen etengabeko gatazka horri oreka berdindu nahi izatera. Lana agudoago eta arinago eginda, agian, emaitza hoberik lortuko genukeen arren, hala ere beti borroka horretan iraun behar, ezin inoiz «garenaren neurri» etorri...

JAA: Bai, inguruko askok agian uste izango dute eskolan bezala ari izaten naizela, «bikain» baten bila, baina ez da hori: gaixotasun bat da. Adibide xume batez adierazita: *Homo faber*-en originalean esaten baldin badu, gutxi gorabehera, «nik ez dut inoiz

emakumeekin segurantziarik izan», ni, esaldi horretan edo beste edozeinetan, normalean itzuli-mitzulika hasten naiz, hiru edo lau bertsio ezberdin saiatur beharbada: «nik ez dut izan inoiz emakumeekin segurantziarik», «inoiz ez dut emakumeekin segurantziarik izan», «ez dut sekula emakumeekin segurantziarik izan», eta abar. Azkenean, esaldia utzi, hurrengo batean horretara atzera etorri eta, agian, guztiz bestelako irtenbide bat eman dio: «emakumeekin segurantziarik sekulan ez nik» (azkenean, hala gelditu zela uste dut, adibide konkretu honetan). Alegia, eta hori esaldiaren raxukerari, sintaxiari, erritmoari-edo, dagokionez soil-soilik; lexikoaren aldetiko zalantzak ere tartean sartuz gero, biderkatu egiten dira aukerak eta problemak: «segurantzia», «segurtasuna», «ziurtasuna» edo zer arraio izan behar duen erabakitzen hasiz gero, pentsa ezazu noraino eta noiz arte luza nintekeen. Halako batean, zirt edo zart egin behar duzu, jakina. Zoratuko ez bazara, behintzat.

JG: Dena dela, zure adibidearen hitzak beste arrasto batera eramanez, *Hadrianoren oroitzapenak* egin zenuenetik ez al duzu ziurtasun handiagoa sentitu, gure literatur hizkeran hitzen esanahi zehatzagoaren aldetik, hitz asko eta asko dekantatuagoak dauden alde-tik.

JAA: Agian hala izango da, norberak itzulpengintza prozesuaren zurrunbiloan sartuta dagoenean argi ikusi edo sentitzen ez badu ere. Beharbada, inoiz patxada pixka bat hartu nahi nuke Yourcenar-en bai Golding-en itzulpenak osterira irakurtzeko, izan ere hortik aterako nuke ziur asko ondorio zuzenagorik euskarazko literatur hizkerak azken

urteotan, ni itzulpengintzan hasi nintzenez geroztik, izan duen bilakaeraz, finkatzeaz eta ziurtasun hartzeaz. Hasierako itzulpenetan, oroitzen naiz, haztamuka ibiltzen nintzen askotan, eta geroztik jakin izan dut *Hadrianoren oroitzapenak* garai batean erabili izan zela literatur itzulpenak nola egin behar ez diren eredu gisa, zintzotasunaren edo fidel-tasunaren aurkakotzat baitzuten askok. Esate baterako, hitzen definizio zehatzaren gorabeherak direla eta, itzulpen hartan, hitz baten baliokide guztizkoa euskaraz aurkitzen ez banuen, sinonimiara jotzen nuen izen eta, batez ere, adjektibo askoren adiera emateko, eta horrela «lúgubre» azaltzen baldin bazen, adibidez, bada, apika, batean «itzaltsu» jarriko nuen, eta bestean «laiotz» eta bestean «ospel», edo biak edo hiruak batera, deskuidatuz gero. Sintaxian ere, perpausa luzeetan etenak sartu, eta esplizitazio aldera baliabide gehitxo erabili nituela uste dut; alde honetatik, seguru aski oso justifikatuak zeuden egin zizkidaten kritika haietarik asko eta asko. Nolanahi ere, iruditzen zait nire itzultzaile jokabidea ez dela asko aldatu denbora tarte horretan: agian, denon «biltokia» aldatu da, guztion artean bide luze horretan landu ditugun baliabideak aldatu dira, heldutasun kultural batera iritsiak garela esango nuke, baina funtsean itzultzaile bakoitzaren berezko-edo jarrerak berean dirau.

JG: Ez da bakarrik zehatzagotu itzultzaileak idazteko duen modua, irakurlearen ikuspegia ere franko aldatua dela esango nuke. Zerorrek, *Hadrianoren oroitzapenak* euskaratu zenuenean, aitzindari lana egin behar izan zenuen gauza asko eta askotan, baina gogoan izan behar dugu kultur maila horretako liburuak euskaraz irensteko irakurleak ere

gutxi zirela orduan, gaur baino askoz gutxiago. Jakina, orduko irakurleari zure itzulpenak asko eskatzen zion, irakurketa neketsua eskatzen zion, inoiz erraza ez dena. Neroni behintzat –argi aitortuko dut– halako zerbait gertatzen zait: hiztegian begiratu beharreko hitzen dentsitatearen arabera, utzi egiten diot irakurtzeari. Ikusi egin beharko litzateke orduan zure itzulpenean arkaismotzat edo pedanteriatzat jotzen ziren zenbat hitz onartzen diren egun normaltasunez...

JAA: Bat oraintxe esango dizut: «nerabe» hitza. Orduan hitz ia ezezaguna zen, oso oker ez banago; nik neuk Mitxelenari irakurria nion nonbait hitzaren jatorri («nere habe» edo halako zerbait) polit askoa ere, baina orduan ez zuen, idatziz ere, ia inork erabiltzen, nik dakidala. Gaur egun, berriz, ahoz aho hor dabilta «nerabearoa», «nerabetsuna» eta abar.

JG: Berdin gertatzen zaio «ertain» hitzari: Mitxelenak hitza susmopean jarri zuenez geroztik, Txillardegiren asmakizuna ote zen, anatema bihurtu zen zenbaitentzat. Geroztik, Bermeon makina bat bider entzun izan diet bertako hiztun jatorrei «*anaidze ertaine*», eta abar. Agian hori da aitzindariaren penitentzia: bere garaian ulertua ez izateaz gain, gero atzetik datozenen ordain eskasa jasotzea. Izan ere, azken zortzi edo hamar urteotan literatur itzulpengintzaren alorrean egin den lan eskeraga aitzindariak ondutako lurretan ereindako hazia izan da. Gaur egun, zorionez, fidagarritasun handiagoz itzultzen dugu, zehaztasun zorrotzagoz; jakina, itzultzailea beti erratu daiteke, ez bakarrik informazioaren aldetik: intentzioa, estiloa, doina... gauza asko izaten dira jokoan, baina

nolanahi ere gaur egun esan daiteke itzul-tzaileak jatorrizko esaldian atzematen duenaren arabera lehen baino zehaztasun handiagoz joka dezakeela. Hori alde batetik; bestetik, uste dut sendatuxea dugula, baita ere, gaizki ulertutako zehaztasuna: hemen jatorrizkoan izena ageri baldin bada, nik izena bilatu behar dut ordaintan, kosta ahala kosta, asmatuta baldin bada ere. Zure azken itzulpenean askoz ere modu sintetikoagoa aurkitu dut, egia esan: esaldiari erantzuten ote zaion, ez hitzen banakako ordainari. Horrek ez du kentzen, inolaz ere, hitz berrien bila ari izateari, *Homo faber*-en ez baitiozu horri uko egin.

JAA: Zuk esaten duzun modu sintetikoago horretan egin baldin badut *Homo faber*-en itzulpena, alegia kategoria gramatikal bakoitzari estuegi lotu gabe eta ordainak esaldien testuinguru luzeagoetan bilatuta, ez dut hartara berariaz jarri naizelako egin. Senez egin dut, nik uste, ez modu kontzientean. Beste era batean azaltzeko kontu hori, hauxe esango nuke: itzulzaileak bere lanaren aurrean duen jarrera deskribatu edo hitzez azaltzea oso zaila gertatzen zait. Zer egiten ote dut nik esaldi baten aurrean eseri eta lanean hasten naizenean? Nolako prozesua dago nigan? Hori ia ezinezkoa da esatea, eta gainera zinez uste dut aforismo moduko bat ezarri behar dela: itzulzailearen neurria ez dago egiten duela esaten duen horretan, benetan egiten duen itzulpenetan baizik. Beraz, nahiago izaten dut ez galdetzea itzulzaileari nola egiten duen bere lana; haren lanak esango du zer neurriko itzulzailea den. Nik badakit, lehen esan dudana bezala, itzulpenak erditzea asko kostatzen zaidala, erritmo geldoan lan egiten dudala, baina hori

konstatazio hutsa da, ez diot horri ez meriturik ez akatsik ikusten. Hala da eta kito. Adibidez, *Homo faber*-en itzulpena gutxienez orain dela bost urte hasi nintzen lantzen. Tartean, zenbait faktore direla medio, esate baterako, eta batez ere, nire alemana oso urria zela eta arian-arian ikasi egin behar izan dudalako (eta beste zenbait faktore ere bai, pribatu eta publiko), kontua da lanak etenaldi luzeak izan dituela. Alabaina, guztira jota, buru belarri horretan sarturik ordu asko eta asko eman ditut, lehen esan dudana bezala; *Homo faber*-ek, orotara, hiru edo lau bertsio izan ditu, azkenera arte. Batzuetan pentsatu izan dut halako deformazio profesionala ere egon daitekeela tartean: egunero halako testu normatibo lehorrak itzultzen saiatu beharra daukagunok ez dugu ihesbide askorik izaten, eta xehetasunetan asko eta ongi erreparatu behar izaten dugu. Egunero «amortización voluntaria con reducción de cuota» eta tankerako sintagmak euskaratu beharrean bazaude, ordain zehatzak bilatzeko ohitura hartzera ere iritsiko zara azkenerako. Horrek badu, dena dela, bere alderdi txarra: nik uste dut *Hadrianoren oroitzapenak* euskaratu nuenen xaloago eta sanoago nintzela, ez bakarririk gazteago. Nik nahi nuena zen jatorrizko liburu hark, frantses kulturaren hazi eta hezitako bati eragin diezaiokeen pertzepzio bera gure artean birsortu edo piztaraztea. Ez bakarririk landarea aldatu gurera, baizik landareekin batera bere zotala, bere sustriak eta bizigiroa; beraz, lanean erreferentzia bat izaten nuen beti: frantses edo quebec-tar batek liburu hau irakurtzen duenean, honen kadentziak, honen *clairté* kartesianoak zer esaten dio? Beraz, nola lortuko ote nuen nik halako hori euskaraz? Hori zen dema, baina horretan zegoen behar bada gorderik segada

ere, gero etorri baitzen zenbait «segalari» gauzak bere lekuan uztera. Kontraesana dirudi, baina agian orduan libreago nintzen itzulpenak egiten; adjektibo baten ordain zehatzik aurkitzen ez banuen, lasai jarriko nituen bi edo hiru baliokide segidan, nahiz jakin Axularren trikimailu bera ari nintzela erabiltzen. Dena dela, oso kontuan eduki behar dela iruditzen zait Yourcenar-en prosak duen gauzarik zailena sintaxia dela, perpaus tolesduraz betetako eta amaigabeak, periodo latino bihurri eta xehetasunetaraino ia mugagabeki luza daitekeen hori...

JG: Irakurria dut nonbait estilo hori, *periodo circunstanciado* horrena alegia, Barrokoaren garaian sortu zela Ameriketatik Espainiara bidalitako akta edo agiri ofizialetan, «donde...», «el cual...», «de los cuales tantos...» eta abar, hitz batera, azaldu beharreko zirkunstantzia guztiak perpaus edo esaldi bakarrean bildu nahirik.

JAA: Halakoxea da, bai, Yourcenar-en prosa, obra horretan behintzat. Dena dela, denboraren poderioz, ikusirik inguruan marmitzen ari zen literatur itzulpeneko eskola eta itzulpen jakin batzuk irakurrita, ohartu ere bai ni neure burua diziplinatu beharra nekala, Joxerra Garziak orain dela gutxi oso ongi definitu didan nire aspaldiko akats hori gainditzearen. Nola definitu didan? Bada, honela: «Hik joera daukak gauzak gehiagotzeko edo gehiegitzeko». Oso definizio zehatza, eta eskertzekoa beraz, aitortu behar dut, zital xamarra agian, baina ez petrala: batez ere, gero esango dizudan bezala, laguntzaz lagundurik datorrenean. Konturatu nintzen, dena den, joera horretaz, *Hadrianoren oroitzapenak* egin ondoren, eta horregatik

agindu nion nere buruari Golding-ena zehatz-mehatz, ezer gehiagotu ez *gehiagitu* gabe egingo nuela, eta halaxe egin nuen, ustez behintzat. Oraingo honetan ere, beste horrenbeste egiten saiatu naiz.

JG: Golding-en itzulpenaren inguruan izan zen gorabeherarik?

JAA: *Eulien ugazaba* obraren inguruan oker ulertze handi bat dabilela esango nuke: protagonistak mutikoskorak direnez, irudi luke gaztetxoekiko kontu bat izan behar duela, haien maila eta hizkerara egokitua. Ez dago halakorik inondik ere: filosofia eta mundu ikuskera ezkor lazgarri batekin batera, eskolako hizkera formala dago ia beti mutikoskorren arteko elkarrizketetan. Go-goan dut nire zalantzak uxatzeko ingeles jendearen iritzia ere kontrastatu nuela, eta ez dago zalantzarik: hizkera formala, eskola mailakoa darabilte. Aurreiritzi bat dago: gaztetxoak direnez, argota eta halako hizkera markatua erabili behar dute, beraz liburu erraza izan behar du, baina ez da egia. Hango deskribapenak, esate baterako, ez dira «gazte literatura» generoan ezagutzen ditugun liburuen parekoak, ezta gutxiagorik ere. Badakizu halakoetan zer gertatu ohi den estereotipo bat sortzen da, kritikariren batek liburua hala izatea nahi lukeelako, ez hala delako, eta hortik aurrera hariak jarraitu egiten du. Nik nobela itzultzen hasi aurretik egitasmo bat finkatu nuen, futbolearen entrenatzaileak partidaren aurretik arbelean egin ohi dituen estrategien gisara, baina gero, behin lanaren zurrumbiloan sartuta, gauzak ahal bezala egin nituen, jakina. Azkenean, nire hiru literatur itzulpenetan jarrera eta jokabide berdintsua erabili dudala iruditzen

zait, ahal nuen neurrian gure arbasoen hizkuntzarekiko leialtasunez, baina Goldingenetik aurrera erneago ibili izan naiz, inork ez dezan esaterik izan «gereziak anpolaitzen» ibili naizenik, norbaitek orduan esan zuen bezala. Bestalde, intsumisio apur bat ere ezarri nuen, berariaz eta nahitara: Mutrikuko hitanoa erabili nuen mutikoen arteko solasetan, denetan arkaikoena, «diagok», «diatorrek», «diakiagu» eta halakoak darabiltzana oraindik ere, eta ez soilik nire familiaren jatorri herriarekiko leialtasun edo konplimentu gisa, baizik eta huraxe zelako nik egokien neritzona, higadura eta sakabanaketa fonetikoaren aurretiko egoeraren adierazle, hainbati «arkaikoa» irudituko zaion arren beharbada, eta azkenerako, denok dakigunez, Euskaltzaindiak bestelako eredu bat hobetsi eta arautu duen arren («zagok», «zatorrek», «zakiagu»).

JG: Oraingo *Homo faber*-en, berriz, esango nuke hizkera neutroagoa dagoela. Alde batetik, euskararen estandarizazioa handiago da, eta bestetik euskal prosa literarioa ere garatuagoa dago, ez da zure aurreko itzulpenetan bezain markatua... Nire irudiko, beste batzuentzat eredu izan daiteke, eta alde horretatik aurreko itzulpenak baino baliagariago dela esango nuke, bere baitan gorde-tzen baitu ez bakarrik azken hamarkadan literatur itzulpengintzak egin duen bidea eta sortu dituen errekurtsoak, baizik horrekin batera zure ekarpen propioa.

JAA: Kultur erreferentziak ere oso garrantzikoak direla uste dut. *Homo faber*-en protagonistaren pentsamoldea oso lotua dago teknikari eta teknologia munduari. Artea, filosofia edo erlijioa txorakeriak dira haren

aburuz, balio gabeko denbora galtzeak. Alta, pentsamolde horrekin bat datorren hizkera, doinua, erregistroa eman beharra neukan euskaraz, eta nire artean pentsatu nuen orain dela hogeit hamar urte baino errazago nuela gaur egun, gure inguruan, halako euskaldun prototiporik aurkitzea, enpresa munduan eta gai teknikoetan murgildurik dabilen euskalduna, kultur kezka edo bizi-pen ikaragarririk gabea, alegia. Egia esan, neronek ere ez daukat oso argi zer ote den lehenago, eta zer geroago: halako jendea izatea baldintza da era jakin bateko diskurtsoa sortzeko, ala diskurtsoak ere eragiten du hein handi batean halako jendea era horretan mintza dadin? Ziurrenik albo bietarako eraginak daude etengabe, eta nik itzulpengintzan eragin horiek jaso egin ditut.

JG: Gainera, ereduak ez dira bakarrik sozialak, literarioak ere badira. Esan nahi dut, *Homo faber*-eko protagonista hori izan zitekeela, gutxi gorabehera, Saizarbitoriaren entziklopedia saltzailearen parekoa. Literatur erreferentzia horiek, gero eta ugariagoak, oso garrantzikoak direla iruditzen zait, diskurtsoaren eta mintzamoldearen bizkar hezurra osatzen laguntzen baitute, egiazkoagoa bihurtzen. Sortze lan batetik datorrena, eta itzulpen lan batetik datorrena, bide berean doaz azkenean, estandarizazio maila gero eta nabarmenagoa da.

JAA: Itzulpena argitaratu zenean, adiskide batzuk –zenbait kazetarik ere bai– esan zidaten ea 1954an idatzitako liburua ez ote zen zaharkituxea gelditu. Ez zait horrelakorik iruditzen niri, ez mamiz, ezta hor agertzen zaigun pertsonaiaren tipologiaren aldetik ere. Gaur egunean profesional eus-

kaldunak, euskaraz eskolatuak izan direnak alegia, eta lan gorabeheragatik kanpoan atzera eta aurrera ibiltzen direnak, globalizazio ekonomiko eta profesionalaren zurrumbilaoan bizi direnak, agian ez dira hain arrotz noblela honetan azaltzen den egoerarekiko. Ez dut uste jauzi ikaragarriarik egin behar duenik gure irudimenak horretara iristeko. Xehetasun bat aipatuko dut, normalizazio horrekin zer ikusirik duena. Gaztelerazko itzulpena eskuartean izan nuen nire lana egite-rakoan, eta hor orri barrenetan itzultzaileak gazteleraz ematen ditu jatorrizkoan alemanez ez dauden esaldiak, ingelesezkoak edota frantsesezkoak gehienbat. Nik, berriz, ez dut halakorik egin: aireportuetako bozgoragailuen mezuak, esate baterako, ingelesez utzi ditut, normaltasun osoz. Zailagoa gertatu zitzaidan, sinesgarritasunaren aldetik, euskara Hadriano enperadorearen czpainetan jarri beharra.

JG: Zure itzulpenaren alderdi teknikora joanda, kontu bat nahi nuke nabarmendu: elipsia. Jakina da euskaraz aditz laguntzailearen elipsia erraz gertatzen dela, baina itzulpen honetan era erradikalagoan jokatu duzula esango nuke. Aditza osorik desagertzen da, «berak niri» eta halakoak, «esan zidan» osorik kenduta. Zer nolako jokabidea izan duzu horretan?

JAA: Bi gauza esan behar ditut. Batetik, aditza –aditz laguntzaile, bederen– kentzea gure tradizioan eta egungo mintzamenean ere bizi-bizirik dagoen baliabidea dela uste dut; beraz, alde horretatik ez dut inolako berrikuntzarik sortu horretan. Modu natural samarrean atera zaizkit halakoak, beti ere

lehen aipatu ditudan zalantza etengabeen barruan, noski. Bestetik, izan daiteke baita ere originalaren monotonia antiliterarioa, elkarriketetan etengabe gertatzen dena, hausteko modu bat. Adibidez, gupida gabe errepikatzen du «esan zuen», behin eta berrero, inolako aldaerarik bilatu nahi izan gabe, ez «ihardetsi zuen», «arrapostu zion» edo beste ezer; ez, beti «esan zuen». Batzuetan, horiek jan egin ditut, argi eta garbi. Zergatik? Behar bada nire Maxwell-en deabrutxoak eraginda; esaten nion neure buruari: «ez hadi horren mimetikoa izan, estilizatu ezak elkarriketen haria, bestela ere aski pisutsua baita». Batzuetan, beraz, erreferentzia pertsonalak jarri (nork-nori) eta kito.

JG: Monotoniaz gain, aipatu duzun adibidean ere, aditzaren elipsiak arazo sintaktiko batzuk konpontzeko ere balio dezakeela dirudi.

JAA: Bai, agian nik aipatu dudana kasu horretan ez da ezer anbiguotzen, beraz zilegi iruditzen zait egitea, baina argi esango dut baita ere ez dudala modu sistematikoan egin, modu kontzientean behintzat. Askatasun handiagoz jokatu dut, eta «interpretazio puntualaren detektagailua» erabili dut maiz. Adibidez, frantsesez «on» bezala, alemanez ere «man» erruz erabiltzen omen dute, hau da, modu inpersonala lehen pertsonaren ordeztu: «nik ez dakit» esan ordeztu, «batek ez daki» edo, alegia. Max Frisch-ek behintzat etengabe egiten du hori obra honetan, baina nik askotan lehen pertsona jarri dut, oreka moduko baten bila edo, gure hizkuntzazko jardun normalaren aldean arrotzegi gerta ez zedin edo.

JG: Monotoniaren alderdi hori («esan zuen» errepikatzea, adibidez) ez da bakarrik *Homo faber*-en gertatzen, esan daiteke narrazio modernoaren ezaugarria dela. Beraz, ez zait iruditzen hemen erabili duzun elipsia unean uneko arazoci irtenbidea bilatze soila denik: dimentsio zabalagoa har dezake, euskal prosa sintaxi molde berri eta arinago batez jantzi beharraz errebindikazio moduko bat izan daiteke, «bide hau ere badago» orotarazi nahia edo...

JAA: Berariaz eta sistematikoki ez naiz horren bila ibili, baina agian aditzaren kontua izango da hor tartean. Adibidez, inmigioki paperak egitera edo ezkontzara doazenean, eta tankera horretako pasarteetan, gauzak oso arin kontatuak daude, adizki guztiak lehenaldiko marka dutela. Jakina, euskaraz ezin izango dugu «hango leihatilara joan ginen eta hango gizonak esan zigun...», dena era horretan, hor arintasun eta bizkortasun guztia kenduko baikenuke, guztiz gainera. Orduan, halako pasarte batean horrenbeste gauza kontatzen baditu, lehenaldi perfektuko aditz laburrez josirik, nire joera izan da elipsiaren bitartez arintasun hori jasotzen saiatzea. Dena dela, ez zait iruditzen gure zaharren hizkeratik urrunegi goazenik halakorik egiterakoan.

JG: Pasarte arin eta ekintzaz beteriko horietan aditz elipsiaren bitartez lortzen den giro narrazioa, horixe da hain zuzen ere liburua irakurri dudanean gehien eskertu dudana: narrazioaren ekintza ez da eteten, aurrera doa abaila bizian, zailtasunik gabe. Alde horretatik iruditzen zait ekarpen ederra egiten dioela euskal prosaren normalkuntzari, eta badugula hor denok zer ikasirik. Adibi-

detxo bat: «Ea zertan ari nintzen pentsatzen denbora hartan guztian, neskak niri galde». Irakurri nuenean, nire artean pentsatu nuen oraindik muturrerago era eramanekeela esaldia, «galde» bera kenduta, baina garrantzizkoa da bide horrek «Ea zertan ari nintzen pentsatzen denbora hartan guztian galdetu zidan niri neskak» astun, diskurtsiboegiaren aldean duen soiltasuna azpimarratzea.

JAA: Izan ere, ziur asko alemanez halaxe egongo zen, zehar galderak estilo zuzen horretan egitea ez baita harriztekoa, akotaziotik hurbilagoa dagoena. Gainera, gauzen hurrenkerari ere begiratu behar zaiola uste dut, ez baita berdin esaldia galderatik abiatzea («ea zertan ari nintzen...») edo galdegiletik abiatzea («neskak galdetu zidan...»). Nik kezka bat izan nuen nobela itzultzen ari nintzenean: alemanez hiru edo lau silabatan, hitz pare batean, ematen baldin badu denboraren, subjektuaren eta ekintzaren informazioa, zer egin behar dut nik, bost hitzetan eman? Ekonomia narrazio orokor bat behar-beharrezkoa dela uste dut.

JG: Irakurle gisara esan beharra daukat, oro har, oso eroso ibili nintzela liburua irakurtzen, eta ekintza narrazio horrek izango du ziur asko zer ikusirik horretan. Dena dela —orain deabruaren abokatuarena egin behar dut— batzuetan iruditu zait erne ibili beharra dagoela elipsi horiekin, izan ere elkarrizketa batzuetan «baita nik erantzun ere:» gisakoak ageri dira, ez asko, baina bai era ohargarrian. Halako egiturek indar enfatikoa ematen diote esamoldeari, apika jatorrizkoak ez duena, elkarrizketa baten barruan «bai nik esan ere...» moduko batek

galdu egiten baitu doinu neutroa, eta indar enfatikoaz kargatzen baita.

JAA: Arrazoi izango duzu, ziurrenik, nahiz orain ez naizen oroitzen halakoak berariaz egin izana. Dena dela, esan beharra daukat liburuak baduela barne eboluzio bat, ez bakarrik mamián, azalean ere bai, azken partean askoz ere poetikoagoa baita, pertsonaiak gizatiarragotzen diren heinean. Azken zatian enfasia askoz ere handiagoa da, harri-dura zeinuak askoz ere ugariagoak dira, adibidez.

JG: Hala ere, txikikeria horrek ez dio funtsean ez baliabide horri, ez egindako lanari oro har, deus ere kentzen, oso ongi landutako itzulpen baten aurrean gaudela beldurrik gabe esan baitaiteke.

JAA: Mila esker. Baina ez litzateke gizabidea izango lan hau burutzen lagundu didatenak ahaztea. Nori berea, badakizu. Joxe Azurmendi aipatu behar dut aurrena. Lexiko aldetik argibide handiak eman dizkit, baita hainbat kultur erreferentzia eta testuinguru ulertzen ikaragarri lagundu ere, ni bezala Alemanian bizi izan ez den batentzat bestela

ulertezin gertatuko lirateke-eta. Joxerra Garziarekin ere zorretan nago, lubakiko lana-edo deituko nukeena egin baitit: lehen 20 orrialdeak hitzez hitz xehatu dizkit, zorrotz eta gupidarik gabe, eta berari esker pasarte asko berridatzi ditut (20 orrialde horietan ez ezik, baita aurreragokoetan ere), estiloa eta esamoldea soiltze aldera, testu unitateen arteko loturak zorrotze aldera, eta abar. Xabier Mendiguren Elizegiren alde ere beste horrenbeste esan beharra daukat: euskarazko bertsioa goitik behera jorratu dit, bere editore eginkizuna beteaz noski, eta irakurketa kritiko horretatik aldaketa eta hobekuntza interesgarri asko eta asko bereganatu ditu testuak. Eta azkenik *-baina ez azkena*, ohiko esamolde anglosaxoi topiko samartua errepikatuz—Walter Heim aipatu nahi nuke, Heidelbergeko irakasle eta adiskide bat, eleberriaren giroa hobeki ulertzeko laguntza dezente eman baitit; berak nire *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* katalanez irakurri ondoren egin genuen elkar ezagutzea, telefonoz eta gutunez lehenik, baita aurrez aurre ere berandua-go, eta geroztik harreman estua izan dut harekin. Euskararekin liluraturik dagoen hizkuntzalari aleman bat da, euskaraz txit ongi ikasi duena. Eskerrik asko denoi, beraz.